

## SARRERAKO ZERBAIT

Buru-biotz gara, ta barrenetik atara oi doguz —erleak ezta lez— pentsamentuak, itzaren bitartez gero adierazten emonik. Batzuk gozo ta samur, zakarrago beste batzuk. Olorkari-saillean be tarte aundia dago batetik bestera; oierkaria, alan be, bere pentsamentuak eder ta antzetsu adierazten alegindu oi da.

Izaki goi-argitu onein lanak, mamiña ta azala, gutiz nabarmen ditugu. Ta oni begira eritxi ez-bardiñak azaidu eta erakutsi oi dira. Mamiñak berez ete dau ederra, aia azaictik artzen? Barrua beiñago dogu, azala baiño. Errromantikuentzat batez be, ezpei azalak irauui ez aldatu barruko biotz-zauskada ta sentimentuak: barreneko esan gurea da aurrenengo, ta gaiñeko jantzia gero.

Lanaren gunak, beti, be, olerki-zeiaian baitik bat, soiñeko dotorea eskatzen dau. Eguneroko bizitz-zactictatik jasotako erti-gaiak —arte-gaiak— izan daitezkez bapc balio bakoak —kondaira-jazokun oso txikiak, gizarteko gorabera oso utsaren urrengokoak—; baiña ezin geinke iñundik iñora be ukatu barrukoaren eta azalekoaren artean artu-emon aundia dagoanik.

Gaur esanari garrantzi geiago ezarten dautsagu, zelan esaten danari baiño. Ederra, baiña, beti antzirudi ta metafora bitartez adierazten dogu, ta antzirudiok jantzi dotore eske daukaguz. Pintura Lauki bat ezta edozein kolorez osotzen; ezta musika-zati bat be edozelako doiñuz, edo taitlu-irudi bat, eskultura irudi bat edozein arri-mukuluz. Beraz, itz ederra azaltzeko be itz egoki ta dotoreak erabilli bear dira, olerki-lanean diardugunean batez be. Izkuntza poetikua deritxona.

Izaki miressgarri onein lanari begira ez da errez nobere ustebide ta eritxia emotea. Ertz asko ikutu ta aztertu bear dira, aurretik. Eta ortarako ezta gai edonor. Sarri, bai, papagai antzera itz ba-dagigu, baiña aburu zeatza, jatorra ta brintzala emotea ezta ain samurra.

Askoan, orraitño, mutitlak gara geuro eritxia azaltzen. Onela jokatu oi dogu: egitle bat naiz arto bat atsegin ezpa-yat, aren lana ezta ona, puntcrengoa izanda be. Auxe da askotan gure jokabidea. Baiña au ezta objetibua izatea, guztiz norberel:oi izatea baiño. Ta olan ez dagigu egiazko kritikarik, otz eta sentikor-eza baizen. Poesia zer danik be ez dakinaren eritxia. Gaur, zoritxarrez, taiu ortako eritxi-emote artoteak sarri jasan bear ditugu.

Gauzak egozan iekutik atera ondorean, ez dakigu barriro nun egokitu; edo-ta etxea lurrera bota ondoren ez dakigu barria zeian jaso. Gai askori buruz mintzatu oi gara, jakintsu zurrean. Gizakoiak gara, gizatasun zaleak —humanistak—; kritika latz eta gordiñaren bidez —sarri esteringoa dirudi— norbere aldiko jakite, oitura ta gizarte-igierak obatz ta osotu nairik, oierkiaren edo eie-ederraren izana ta oginkizuna adierazo ta mugatu bearrean, orren zelaitik alduendua, ingurumarka ibilli oi dira, ez-jakiñezko autslaiñoa arrotzen.

Nai doguna ixillazten dogu, ta nai doguna argimutil gaiñeratu, ezeren ardura bage. Gauzeari ez dautsagu bere balioa ezarten. Euskal poeten artean be ba-dogu olako zerbait. Bai, batzuk, egia esan, ba-dabez euren arranoak, Promotou'ri lez erraiak aspertu barik jaten dautsezanak., Zoriak alan naita, curen Eumenides edo iratxo gaizkiñak dabez atzetik, mamu asperkor antzera gau ta egun orpoak zapaltzen dautsezanak.

Baiña ez ikaratu. Aldia da nunbait gauzai benetako balioa dakartscna. Gaur, ari edo oni eztauan balioa ezarrita be, gerora, gauzak erdi-billosik geratzean, curen berezko barru-kemen guztia aragitu egin oi yake. Gauzak orain geure begi aurrean aurkitzean dauken laztasuna, gero galdu egin daroe, gomutazko miesa-arietan argi, garbi ta ederrago egiñik. Izan be, gaurko olerki-lanak, geuk lenagokoenak lez, askoz garbiago ta era apartekoz ikusiko dabez gure ondorengoak.

Aurrean daukazun olerki-liburu au poeta baten lana dozu. Lenagotik be ba-ditu olako lanak: **Uskeriak** eta **Urre-bitsa**. Len lez orain, arranguratsu, kezkatu, usakatx eta zain-bizi yatorku. Gaurko gizarte-arazoetan sarturik, gizon billa ibillia dozu. Gazte bat erromeriz erromeri dabillcnean, onela esaten da: «neskatan dabil». Egieder gizonetan dabilkigu. Diojenes'en antzera nunbait, kruselua eskuan daualarik. Aurkitu al dau?

Gizona jausia ta porrot egiña ikusten dau, duintasun barik; ezta goi-zale, lur-zale baiño; biotza maitasun-abi barik, gorroto-abi dau. Ta olerkariak ezin dau ori ikusi. Gizartean, lantegi, industri, salerosketetan, zuzentasunik eza agiri da. Olerkariak ezin dau olakorik ikusi. Erria nortasun bage, oinperatu ta laskitua dakus, eta olerkariak ezin ori eroan. Bere kantua, bada, geienik zurbilla, tristea da.

Aurreko bertso-liburu bietako lanak —Orixe'k iñoanez— gogaketa aldirako gai-ckintzaille ba'dira, esku arteko au —sakonago, edertoago egiña— geure bizi-jokabiderako aillagiñekoa *dogu*.

Larrea, 1969-IV-9'an

**Aita Onaindia**